

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2023ko ABENDUA


EAEko industria-jarduera %5,4 igo zen 2023ko abenduan

2023ko balantzea %0,3ko hazkundearekin itxi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino %5,4 handiagoa izan zen 2023ko abenduan. 2023 osoko balantzea industria-jardueraren %0,3ko igoerarekin itxi zen.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduera %4,1 igo da azken hilabete honetan, urtaroen eragina zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Bitarteko ondasunetan* (metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne) produkzioaren urte arteko igoera %4,8koa izan da.

Kontsumo-ondasunek, aldiz, urte arteko joera negatiboa izan dute 2023ko abenduan, produkzioa %0,5 murriztu baita sektore osoan. Jaitsiera hori *Kontsumo-ondasun iraunkorren* portaerari zor zaio, non altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa jasotzen den, besteak beste, %11,2ko murrizketarekin. *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren*

produkzioa, bestalde, %1,9 igo da. Azken horien artean daude elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienerako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Energiaren produkzioa ere jaitsi egin da 2023ko abenduan, %4,6 aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren finketa.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa berriz, %10,3 igo da, aurreko urteko abenduarekin alderatuta. Honen barruan sartzen dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta tren-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	5,4	0,3	4,1
Araba/Álava	8,1	0,6	2,9
Bizkaia	2,9	0,5	2,2
Gipuzkoa	6,5	-0,1	6,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-0,5	0,2	1,8
Kontsumoondasun iraunkorrak	-11,2	-9,9	2,5
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	1,9	2,7	1,7
Ekipo-ondasunak	10,3	4,2	3,1
Bitarteko ondasunak	4,8	-0,1	2,5
Energia	-4,6	-9,1	2,7

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarritetik behatutako azken hilera arte metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2024ko Otsailaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Euskal AEko industriako garrantzi handieneko sektoreen artean, urte artean produkzioa gehien igo den sektoreak hurrengoak izan dira: *Garraio-materiala* (%18,6), *Metalurgia eta metalezko produktuak* (%6,4) eta *Makineria eta ekipoa* (%6,3). 2023ko abenduan jaitsierarik handienak izan dituztenak, berriz, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (%8,0) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (%0,5) izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abendua 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	1,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-0,5
Kautxua eta plastikoak	1,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	6,4
Materiala eta tresna elektrikoak	3,7
Makineria eta tresneria	6,3
Garraio-materiala	18,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-8,0

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeoko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2024ko Otsailaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan 2023ko abenduan. Ekoizpenak %8,1 egin du gora Araban, %6,5 Gipuzkoan eta %2,9 Bizkaian.

2023. URTEKO BALANTZEA

2023ko hamabi hilabeteetan, industria-sektore osoan metatutako hazkundeak %0,3koa izan da. Bilakaera positibo hori *Ekipoko ondasunen* eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* portaera onari zor zaio bereziki, urte osoan %4,2ko eta %2,7ko hazkunde metatuak izan baitituzte, hurrenez hurren. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %0,2 gehitu dira. Produkzioa %9,9 jaitsi da *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*, 2022. urtearen aldean, eta *Energian* eta *Bitarteko ondasunetan*, %9,1 eta %0,1, hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, urteko tasa metatu positiboak ikusten dira Araban eta Bizkaian, %0,6 eta % 0,5ekoak, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, %0,1eko jaitsiera metatua izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren **%92,11**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62